



Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako mugimenduak azken aldian erasoak, jazarpena eta kriminalizazioa areagotu direla salatu du. Jaiotzetik honelako egoeran pairatu duten arren, areagotze honen ondorioz salaketa publikoa egitea erabaki duela adierazi dute. Besteak beste mugimendua borroka armatuarekin nahastu nahi dutela azaldu du, mugimendua kriminalizatzeko askoz. Argi utzi dute mugimendua ez zela jaio borroka armatua praktikatzeko ala ere utzi dute ez dutela kriminalizatzen inolako borroka molderik. Egoera honen erantzuleak sektore ezberdinetakoak direla salatu du: politikariak, kazetariak... Kriminalizazio kanpaina hauek errepresiorako giroa prestatzen dutela gaineratu dute. Honen hurrean kikilduko eta borrokan jarraituko dutela argi utzi dute.

#### **Prensa oharra:**

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduaren kontrako erasoak, jazarpena eta kriminalizazioa bere jaiotzaren une beretik gertatu dira. Eraso hauek forma ezberdinak hartu dituzte, baina amankomunean izan dute hauek burutzeko orduan sistemaren komunikabideek, alderdi politiko instituzional guztiek, poliziek eta epaileek elkarlanerako erakutsi duten prestutasuna.

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua 2014ko apirilean jaio zen amnistiaren aldarrikapena berreskuratzeko eta bere aldeko borroka berpizteko, eta horrela adierazi egin du lehenengo unetik. Gure lana desitxuratzeko asmoz eta planteatzen dugun eztabaida politikoa saihesteko saiakeran, ordea, lehen aipatutako eragileek borroka armatuaren eztabaidan nahastu nahi izan gaituzte, mugimendu hau borroka armatua praktikatzeko ez zela jaio hainbatetan esan dugun arren. Noski, inongo borroka molderik gaitzesteko ere ez zela jaio, ezta borroka armatua ere ez.

Borroka armatuaren amaieraz daukagun iritzia galdetu diguten bakoitzean azaldu behar izan dugu borroka molde hau hainbaten artean beste bat dela eta horren inguruan erabakitzea borroka armatua praktikatzan duenari dagokiola, eta ez beste inori. Era berean azaldu izan dugu borroka armatuaren amaiera eta bakea ez direla gauza bera, eta bakearen definizio hori onartzen duena zapalkuntzari zilegitasuna ematen eta zapaltzailearen aurrean altxatzen dena kriminalizatzen ariko dela, disidentzia politikoaren aurkako errepresioari erraztasunak emanaz.

Esan bezala, ez da lehenengo aldia gure mugimendua, bere militantzia eta berarekiko begirunea publikoki adierazi duten preso politikoak errepresioaren jo puntuan jarri gaituztela, poliziaren jarraipenak eta kolaborazio eskaerak, Audientzia Nazional espainolak gurekiko egiten dituen informeak eta politikari eta kazetari txakurrek gure errepresiorako giroa prestatzea berria ez den bezala.

Hala ere, jokaera horiek gogortu egin dira azken egunotan eta horregatik publikoki adieraztera gatoz horrelako mehatxuekin ez gaituztela kikilduko eta gure lana orain arte bezala burutzen jarraituko dugula. Isildu nahi gaituzte, kartzelan nahi gaituzte eta horretarako baldintza mediatikoak prestatzen ari dira. Estatu kapitalistek berezkoa dute errepresioa, ez dute biolentzia iraultzailearen aitzakiaren beharrik egurra ematen jarraitzeko, bilatzen dutena ez delako bakea, baizik eta sumisioa. Militanteak atxilotzen eta kartzelatzen jarraituko dute askatasunaren aldeko azken hazia desagerrarazten duten arte... ala egoerari buelta eman eta borrokaren bitartez garaipena eskuratzen dugun arte.

Amnistia eskatzen jarraituko dugu, gudariak direlako, harrotasunez aldarrikatu nahi dugulako errepresaliatu politikoek burututako borrokaren zilegitasuna eta askatasunaren aldeko borrokan jarraitzeko hartu dugun konpromisoa, ez dugulako onartuko historiaren manipulaziorik eta 'Meliton Manzanos' edo 'Carrero Blanco' ugari izan direla azalduko dugulako. Amnistiaren aldeko oihua zabaltzen jarraituko dugu ez dugulako onartzen espainiar eta frantziar Estatuak askatasun nazional eta soziala lapurtzen jarraitzea. Amnistia aldarrikatzen jarraituko dugu badakigulako askatasuna lortzeko egiten dugun ezer ezin dela etsaiek gu zanpatuta mantentzeko egiten dutena baino okerragoa izan. Jo ta ke irabazi arte!